

**INDUSTRIALDEETAKO DIRULAGUNTZA PROGRAMA – 2024**
**1. ARLOA: Elkarteak sustatzeko eta industria-poligonoen kudeaketa- eta jarduera-planak egiteko dirulaguntzak**

<b>Erakunde onuradunak (3. oinarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Industrialdeetako jabeen eta/edo errentarien elkarteak</li> <li>• industrialdearen garapen mailakatu eta progresiboaren ondorioz sortutakoa baino eremu txikiagoa ordezkatzen duten taldeak.</li> </ul>
<b>Onuradun izateko baldintzak (3. oinarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Legez eratuta egotea.</li> <li>• Funtzio nagusia industria poligonoa kudeatu, zaindu eta hobetzeko jarduerak izatea.</li> <li>• Bizkaiko industria poligono batekoa izatea eta jabetza pribatukoa izatea poligonoaren azalera osoaren edo azalera eraiki guztiaren %50 baino gehiago.</li> <li>• Industria-poligonoan kokatutako enpresen edo industria-poligono osoaren azaleraren jabetzaren % 50 baino gehiago edukitzea.</li> <li>• Lankidetzak akordioaren bat indarrean eta sinatuta izatea poligonoari dagokion tokiko erakundearekin, industria poligonoaren kudeaketa, zaintza eta hobekuntzari dagokionez,.</li> <li>• Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.</li> <li>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikulua ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.</li> <li>• Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan arau-hauste oso larriengatik zigortua ez egotea.</li> </ul>
<b>Diruz lagun daitekeen egitatea (4. oinarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kudeaketa eta Jarduera Plan Integral bat egitea, 2. oinarrian jasotako definizioaren arabera. Plan horrek, besteak beste, honako hauek jaso behar ditu: industrialdearen egoera, hura kontserbatzeko, hobetzeko eta egokitzeko egin behar diren jarduerak eta inbertsioak, hura gauzatzeko ardura duen erakundea, egin daitekeen egutegia eta kostuaren zenbatespena.</li> </ul>
<b>Diruzlaguntza jaso dezaketen gastuak (5. oinarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kudeaketa eta Jarduketara Plan Integral egiteko kontratazio gastuak</li> </ul> <p>Diruz lagundu ahal izango dira 2023ko abenduaren 1etik 2025ko maiatzaren 30era bitarteko faktura-data duten eta 2025eko uztailaren 1a aurretik ordaindutako gastuak.</p>
<b>Dirulaguntzaren zenbatekoa (6. oinarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dirulaguntzaren zenbatekoa onartutako gastu subentzisionagarriaren %75 izango da, 12.000 euroko mugarekin.</li> <li>• Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri eta Aiaraldeko udalerrietan kokatutako erakunde onuradunen kasuan, ehunekoa % 85ekoa izango da, muga berarekin.</li> </ul>
<b>Araudia/Dirulaguntza emateko prozedura (20. oinarria)</b>	<p>47/2024 Foru Dekretua, apirilaren 25ekoa (BAO zk. 85, 2024ko maiatzaren 3koa).</p> <p>Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokarik gabeko araubidean izapidetuko da. Hau da funtsak eskaera zuzen eta osoen erregistro-ordenaren arabera banatuko dira, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte.</p>
<b>Epeak (17. eta 29. oinarriak)</b>	<p><b>Eskabideak aurkezteko epea:</b> 2024ko maiatzaren 13ko 08:30etatik 2024ko ekainaren 13ko 13: 30etara arte</p> <p>Eskabidea Internet bidez aurkeztuko da, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren atalean (<a href="http://www.bizkaia.eus/sustapena-BulegoBirtuala">http://www.bizkaia.eus/sustapena-BulegoBirtuala</a>). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...) edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabili; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.</p> <p><b>Proiektuak gauzatzeko epea:</b> 2023ko abenduaren 1etik 2025ko maiatzaren 30era bitartean hasi eta amaitu beharko dira</p>